

## AUZITEGI MEDIKUAK: PRESTAKUNTZA PLANA ERATZEKO ARGIBIDE AGIRIA

---

### *Bigarren urratsa bertatik ez mugitzeko asmoz*

Guardiak direla-eta atera zuen agiriarekin bezala, Justizia Administrazioako Zuzendari Jon Arturo Uriartek urteko prestakuntza-planaren inguruko argibide agiria asmatu du.

Asmatu diogu ez auzitegi medikuak ezta sindikatuak ere ez dituelako aintzat hartu. Honelako instrukzioekin sailak bilatzen duena zera da: gatazka honetan hasieratik izan duen jokamolde negargarriari nolabaiteko legezketasun-antza ematea.

Argibide agiriak ez du aldaketa aipagarriarik ekartzen eta ez du administrazioa derrigortzen langileei prestakuntza egokia ematera. Aurreikusitako planak berdin jarraitzen du izaten hutsala: ez du agertzen arrazoietan oinarrituriko diseinurik eta ez da egokitzen Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak (AMEE) dituen beharretara. Hortaz, dagoen atakatik atera eta hedabideei bera mugitzen ari dela esan ahal izateko nahi du zuzendaria argibide hau. Ur errea, azken batez.

Jon Arturo Uriartek segitzen du auzitegi medikuak erdeinatzen: haien errebindikazio zintzoei ez entzutearena egiten; AMEEK ematen duen zerbitzua behera doalarik berehalako neurriak hartu behar direlako ohararazpenak aintzat ez hartzen; gatazkari irtenbidea emate aldera epai-instantzietatik heltzen zaizkion eskaerei jaramon ez egiten.

Labur esanda, Eusko Jaurlaritzari bost axola herritarrek epemugarik gabe itxaron behar izatea auzitegi medikuaren txostenari; edo epaitegietan seinalamenduak behin eta berriro atzeratu behar izatea.

EAJk, baina, badaki -ondo jakin ere- non topatu soluzioa: **nagusikeria albo batera utzi eta Eusko Legebiltzarrak emandako agindua betetzean** (Osakidetzako gutxieneko mailekin parekatzea, prestakuntza egokia eta guardia ondorengo atsedena).